

MANIFESTAZIOAK. Igandeko partehartzaileak «legez kontrako protesta egiteagatik» zigortu nahi dituzte

Presoak babestea haur bortxatzaileen alde agertzea bezala dela dio fiskalak

Donostiako Auzitegiko Fiskaltzak ikerketa ireki du Donostiako manifestazioaren inguruan

Erredakzioa | DONOSTIA

Iragan igandean Donostian egin zen manifestazioari buruzko ikerketa ireki du Donostiako Auzitegi Probintzialeko Fiskaltzak, Jesus Cardenal Espainiako fiskal nagusiak hala eskatuta. Euskal preso eta errefuxiatuen aldeko mobilizazioan parte hartu zutenei sei hilabete eta urtebete bitarteko zigorra eman nahi diete, «legez kontrako manifestazio bat egiteagatik». Fiskaltzaren irudiko, «balio konstituzionalen aurka» doa ETAko presoan alde agertzea, «naziak, haur bortxatzaileak, emakumeak jotzen dituztenak edota arrazistak babesteko manifestazioak bezalaxe».

Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailak eta EAEko Justizia Epaitegi Nagusiak manifestazioa debekatu zuten, baina igandean Ertzaintzak ez zuen protesta eragotzi, «kalte handiagoak saihesteko»; estropada eguna izaki, jende asko zegoela argudiatu zuen Juan Jose Iba-

rretxe EAEko lehendakariak. Espainiako Gobernuak, PPk eta PSE-EEk gogor kritikatu zuten Jaurlaritzaren jarduna, eta orain hitzak ekintza bihurtu dira.

Lau diligentsia agindu ditu

Lau diligentsia agindu ditu Fiskaltzak. Donostiako Ertzaintzari manifestazioari buruzko txostena eskatu dio; Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eta EAEko Epaitegi Nagusiari, berriz, manifestazioa debekatzeko zabalduko espedienteak. Manifestazioaren biharamunean *Deia*, *El Pais*, *El Mundo*, *El Correo* eta *Gara* egunkarietan argitaratutako albisteak bildu eta erantsi daitezela ere agindu du. Espainiako Zigor Kodeko 514.5 artikuluari jarraiki, «legez kontrako manifestazio baten bultzatzaile edo arduradunek» sei hilabete eta urtebete arteko kartzela zigorra jaso dezakete.

Ertzaintzak ez zuen *Euskal Herriak askatasuna behar du* lelopean egin zen manifestazioa



SERGIO BARRENETXEA / EFE
Jesus Cardenal Estatuko fiskala.

eragotzi, baina bai kontrolatu. Horrela, deitzaileak eta hainbat partehartzaile identifikatu zituen, gero informazioa Espainiako Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epailearen esku uzteko. Manifestarien artean, Joseba Permach eta Joseba Alvarez zeuden, eta baita Txema Matanzas abokatua ere. Bestalde, Xabin Juaristik hartu

FISKALAREN ARGUDIOA

ETAko presoak babestea «nazien, arrazisten eta haurrak bortxatzen dituztenen alde agertzea bezala» dela adierazi du

zuen bere gain manifestazio deialdia.

Balzaren azalpenak bihar Eusko Legebiltzarrean

Javier Balza EAEko Herrizaingo sailburuak Ertzaintzak zergatik ez zuen igandeko manifestazioa eragotzi azalduko du bihar, Eusko Legebiltzarrean. Hala eskatu diote PP eta PSE-EEk, behin eta berriro. Bide batez, ertzainek Garzonen agindua bete eta Batasunaren egoitzak ixtearen zergatia ere azalduko du Balzak; Jone Goirizelaia Sozialista Abertzaleak-eko legebiltzarkideak eskatu zizkion argibide horiek.

Manifestazioa baimentzea eta Garzonen azken autoa «bat» datozela dio Jaurlaritzak

Erredakzioa | DONOSTIA

EAEko Herrizaingo Sailak datoren larunbatean Bilbon egingo den manifestazioa oztopatzeko asmorik ez duela jakin zen herenegun, eta Eusko Jaurlaritzak kritika zaparrada ari da jasotzen horregatik. Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen autoak «urratzea» egotzi diote Espainiako Gobernuak, PPk eta PSOE. Alabaina, Josu Jon Imaz Jaurlaritzako bozeramaileak ukatu egin du hori: Batasuna legez kanpo uztearen kontrako protesta onartzea eta Garzonek manifestazioei buruz ateratako autoa bat datozela dio.

Imazek dioenez, Eusko Jaurlaritzak «orpoz orpo ari da betetzen Garzonen irailaren 6ko autoa, esaten duena manifestatzeko debekuak eraginik ezin duela izan Batasuna ez diren pertsona eta elkarrengan, horiek kausarekin zuzenean lotuta egon arren». Elkarretaratze eskubidea «modu orokor bate-

an murriztea astakeria» dela uste du Imazek, eta Jaurlaritzak manifestazioa debekatzeko ez litzatekeela «arrazoizkoa» izango: «Eskubide osoa dute manifestaziora deitzeke».

Gauzak horrela, iragan igandeko manifestazioa eta Bilbo-ko desberdindu zituen Imazek, eta Donostiako debekatu izana azaldu. Haren arabera, euskal preso eta errefuxiatuen alde egin zen protestan «aurrekari bat» zegoen: «Deitzaile beren manifestazio batean istiluak, kaputxadunak, molotov koktelak eta Gora ETak izan ziren». Datorren asteburukora gizarte, kultur zein hezkuntza arloetan ezagunak diren 40 herritarrek deitu dute, Xabier Amuriza bertsolaria eta Txutxi Ariznabarreta LABeko komunikazio arduraduna tarteko.

Angel Acebes Espainiako Gobernuako Barne ministroak dioenez, «inork ez du zalantzan jartzen» manifestazioko antolatzaileak eta Batasunak «eduki eta pertsona berak» dituztela



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS
Xabier Amuriza eta Amparo Lasheras Bilboko manifestaziora deitzen.

batean. Arnaldo Otegi manifestazioaren «buruan» joango dela esan zuen, eta protestak Batasuna «babea» duela helburu, «Garzonen ebazpen judizialak eragotzi nahi zuena, hain justu». Enrique Villar Madrilgo EAEko ordezkariak, berriz, azalpen eske idatzi zion Javier Balza Herrizaingo sailburuari.

Javier Arenas Espainiako Ad-

ministrazio Publikoetako ministroaren ustez, «ebazpen judizialak betetzea» da Jaurlaritzaren «lehen betebeharra». Carlos Urquijo PPko legebiltzarkideak, berriz, «Garzonen autoari ihes egiteko Batasunarekin elkarlanean aritzea» egotzi zion Jaurlaritzari, eta Balzari «legea betetzeko zein neurri» hartuko di-tuen azaltzeko eskatu zion.

«Eskubide zibil eta politikoen» aldeko manifestaziora deitu dute bihar, Gasteizen

Manifestazioa egingo dute bihar Gasteizen, *Eskubide guztiak, euskal herritar guztiontzat* lelopean. Prentsa-ohar batean adierazi dutenez 21:00etan abiatuko da, Ama Zuriaren plazatik; «zarata-tsua» izango bada ere, ez dute «inongo lelorik» oihukatu-ko. «Azkenaldian hain bortizki urratu dituzten eskubide zibil eta politikoei errespetua» eskatzea du helburu.

Batasuna legez kanpo uztearen kontrako manifestazioa egingo dute gaur Lisboan

Lisboan (Portugal) elkarretaratzea egingo dute gaur arratsaldean, Espainiako enbaxadaren aurrean, Batasuna legez kanpo uztearen aurka. Lisboako Gobernadore Zibila jakinarazi duenez, Eusko-lerriaren Lagunen Elkarteko zenbait kidek, portugaldarrak guztiak, egin dute deia. 17:00etan izango da.

Aralar, ESK eta EHE Bilboko protestaren alde

Aralar alderdia, ESK sindikatu eta EHE elkartea bat datoz larunbatean Bilbon egingo den manifestazioarekin, atzo jakinarazi zuten. Batasunaren aurkako ekimenak gaitzetsi eta protestan parte hartzera deitu dituzte herritarrek.

Tramitera onartu dute Gipuzkoako Batasunaren izen aldaketaren aurkako helegitea

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak tramitera onartu du PSEk Batasunaren izen aldaketaren kontra jarritako helegitea. Maiatzean, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Batzorde Iraunkorrak jakintzat eman zuen izen aldaketa, hots, Batasuna Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak deituko zela.

Batasuna legez kanpo uztea salatu dute peñak

Kirol taldetako zazpi peñak —Indar Gorri, Herri Norte, Mujika, Indar Baskonia, Eztanda Norte, Antsoingo Gazte Gorria eta Txarraka Gazte Asanblada— Batasuna legez kanpo uztea gaitzetsi dute. Peñak salatu dute Eukal Herriko gizarte eremu zabala «isilarazi» nahi dela.